Kontratuen erregistroa 2024ko urrian

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2024ko urrian 55.823 pertsona kontratatu dira, iazko urrian baino 4.822 gehiago (% 9,5eko gorakada). Aurreko hilaren aldean 929 pertsona gutxiago dira kontratatutakoak (% 1,6ko murrizketa).

• SEXUA

Urrian 28.018 gizon eta 27.805 emakume kontratatu dira. Aurreko urtearekin alderatuta, kontratazioak gora egin du bai gizonen zein emakumeen artean, zertxobait gutxiago emakumeen artean; % +7,9 (+2.027 emakume), eta % 11,1 igo da gizonen artean (+2.795). Hileko erlazioan gizonen kontratazioa ia berdin mantendu da (+% 0,02ko igoera, 7 persona gehiago), eta emakumeen kontratazioak, berriz, % 3,3 egin du behera (-936).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 35,66 urtekoa da, eta txikiagoa da gizonen artean (35,44) emakumeen artean (35,89) baino. Kontratatutako pertsona gazteenak Gipuzkoan izan dira (35,26 urte), eta helduenak, berriz, Bizkaian (35,80).

Teknikari laguntzaileen taldea da gazteenak kontratatzen dituena, batez beste 31,13 urte baitituzte. Helduenak zuzendaritza-lanetarako kontratatutako pertsonak dira, 43 urtetik gorako batez bestekoarekin. Lanaldi partzialerako kontratatutako pertsonak lanaldi osorako kontratatutakoak baino gazteagoak dira (34,39 urte eta 36,32 urte, hurrenez hurren), eta alderik handiena gizonen kasuan dago (lanaldi partzialeko kontratuetan 32,43 eta lanaldi osokoetan 36,35eko batazbesteko adina). Kontratuaren iraupenaren arabera, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen batez besteko adina aldi baterako kontratuak dituztenen batez bestekoa baino baxuagoa da (34,32 vs 36,28).

• JATORRIA

2024ko urrian kontratatutako pertsonen % 20,7k atzerriko nazionalitatea du, iazko urrian baino 0,2 puntu gehiago. Kontratatutako atzerritar guztietatik, % 49,6k Latinoamerikako herrialderen bateko nazionalitatea dute, % 15,5ek Afrika iparraldeko herrialderen batekoa, % 13,6k Saharaz hegoaldeko Afrikakoa, % 7,4k Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoa, % 7,3k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa eta % 5,5ek Asiakoa. Bertakoak gazteagoak dira (35,44 urte) atzerritarrak baino (36,52 urte). Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Latinoamerikatik etorritakoak dira gazteenak 35,80 urterekin, eta Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batetik etorritakoak, berriz, helduenak, 38,62 urterekin.

Azken hilabetean, 92 atzerritar gutxiago kontratatu dira (-% 0,8); bertakoak, berriz % 1,9 gutxiago (-837 pertsona). Jatorri guztietatik, Ipar Afrikatik etorritako pertsonen taldean igo da gehien kontratazioa, bai balio absolutuetan bai erlatiboetan, 71 pertsona gehiagorekin eta % 4,1eko igoera erlatiboarekin. Aitzitik, Saharaz hegoaldeko afrikatik etorritakoen kontratazioa da gehien jaitsi dena: 131 pertsona gutxiago, eta % 7,7ko jaitsiera erlatiboa.

Urteko konparaketan, 1.047 atzerritar gehiago kontratatu dira (% 10 gehiago); bertako pertsonen kontratazioa 3.775 gehiago izan da (% 9,3 gehiago). Kontratazio esanguratsua duten

jatorri guztietan igo da kontratazioa, Asiakoetan izan ezik, 7 pertsonatan jaitsi baita. Balio absolutuetan, Latinoamerikatik etorritako pertsonen kontratazioa hazi da gehien, 646 pertsonatan igo baita (% 12,7ko hazkundea); balio erlatiboetan, hazkunderik handiena Europako Erkidegotik etorritako pertsonen kontratazioak izan du, % 16,7ko hazkundearekin (+123 pertsona).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 43,3k oinarrizko prestakuntza-maila du, gehienez ere derrigorrezko hezkuntza egin dute, % 23,5ek batxilergoko ikasketak ditu, % 17,7k unibertsitatekoak eta % 15,3k Lanbide heziketakoak.

Hileko erreferentzian, gora egin du derrigorrezko ikasketetako profiletako (+667, +%2,8) eta batxilergoko ikasketetako (+82, +%0,6) pertsonen kontratazioak. Aitzitik, behera egin du unibertsitate-ikasketak (-1.455, -%12,9) eta Lhko ikasketak (-223, -%2,5) dituzten pertsonen kontratazioak.

Urteko erreferentzian gora egin dute ikasketa-profil guztietan kontratatutako pertsonek. Igoerarik handiena, balio absolutuetan zein erlatiboetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen artean izan da, 2.708 pertsona gehiagorekin eta % 12,6ko ehuneko-hazkundearekin.

KONTRATUEN KOPURUAK

Urrian, EAEn 80.715 kontratu sinatu dira, horietatik 19.034 mugagabeak dira (guztietatik % 23,6). Ehuneko handia da, 2022. urtearen hasieran lan-erreforma onartu eta aplikatu aurreko serie historikoarekin alderatuta. Irailaren aldean 2 puntu jaitsi da da eta iazko urriarekin alderatuta, 3 puntu murriztu da. Kontratu mugagabea dutenen ehunekoa handiagoa da gizonen artean: % 25,4 eta emakumeen artean % 21,9.

Kontratazioak % 8,5 egin du gora aurreko hilabetearekin alderatuta (6.302 kontratu gehiago); baina igoera hori aldi baterako kontratuetan oinarritzen da; izan ere, mota horretako kontratuak 6.365 gehiago dira (% 11,5 gehiago), eta kontratu mugagabeak 63 gutxiago (-% 0,3).

Urteko erreferentzian, % 14,1 igo dira kontratuak 2023ko urriarekin alderatuta, 9.983 kontratu gehiago sinatu baitira. Hala ere, kontratuen bilakaera ezberdina izan da iraupenaren arabera: nabarmen egin dute gora aldi baterako kontratuek (+9.807, +%18,9) eta kontratu mugagabeek berriz modu apalean egin dute gora (+%0,9, +176 kontratu).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, jarduera gehienetan egin du gora kontratazioak. Kontratazioan igoera handienak izan dituzten jarduerak honako hauek izan dira: informazioa eta komunikazioa (+3.245), osasun-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak (+1.567) eta ostalaritza (+1.023). Aitzitik, gehien jaitsi diren jarduerak hezkuntza (-1.647) eta manufaktura-industria (-635) izan dira.

Aurreko urteko urriarekin alderatuta, kontratazioak gehien hazi diren jarduerak informazio- eta komunikazio-jarduerak (+5.121, % 149,1eko igoera) eta ostalaritza (+1.237, +%13,4) izan

dira. Aldiz, jaitsiera handienak beste zerbitzu batzuetan (-290, % 17,4 gutxiago) eta etxeetako jardueretan (-189, - % 14,8) gertatu dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko bilakaeran gora egin du kontratazioak okupazio gehienetan. Kontratazioa gehien igo den profila, balio absolutuetan, zerbitzuetako kualifikatuena izan da, 2.754 kontratu gehiago izan baitira (% 13,2ko igoera); balio erlatiboetan, igoera handiena enplegatu administrarien profilean gertatu da, % 14,5eko hazkundearekin (+514 kontratu). Aitzitik, beherakada nabarmenena, balio absolutuetan, operadoreen profilean gertatu da 453 kontratu gutxiagorekin (-%9,4ko murrizketa); balio erlatiboetan, berriz, lehen sektorean jaitsi da gehien (-%36,4 eta 169 kontratu gutxiago).

Iazko hil beraren aldean, teknikari eta profesional zientifikoen okupazioan izan du kontratazioak gehikuntzarik handiena, bai balio erlatibo zein absolutuetan, 4.446 kontratu gehiagorekin eta % 39,3ko hazkundearekin. Aldiz, beherakada handiena, guztizko balioetan eta balio erlatiboetan, operadoreek izan dute, 617 kontratu gutxiagorekin eta % 12,4ko murrizketarekin.

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, berriz ere, mugagabeen tasa nabarmendu behar da; izan ere, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi zen tasa hau, eta kasu honetan % 23,6ra iritsi da. % 20tik gorako tasa horiek ohikoak izaten ari dira 2022ko hasieran aplikatutako lan-erreformaren ondotik.

2024ko urrian urrian sinatutako kontratuen % 33,6 lanaldi partzialekoak dira (aurreko hilean baino 1,5 puntu gutxiago), % 43,7 emakumeenak eta % 23,1 gizonenak. Kontratazio-mota horren arazo nagusia da gehienak nahi gabe egiten direla, ezarritako kontratu-harremanaren kalitatea eskasa dela agerian utziz. Kontratu mugagabeen % 30,1 lanaldi partzialekoak dira.

Lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak, kontratazio-kopuru esanguratsua duten jardueren artean, honako hauek dira: ostalaritza (% 66,3) eta etxeetako jarduerak (% 51,6). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioagatik gehien nabarmentzen dena zerbitzuetako langileena da (% 55,3), eta gutxien, lehen sektoreko langile kualifikatuena (% 3,4).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoen arabera, kontratazioaren % 25,4 Araban sinatu da, % 47,5 Bizkaian eta gainerako % 27,1 Gipuzkoan.

Hil honetan, Araban 4.413 kontratu gehiago sinatu dira, eta lurralde historiko horretan igo da gehien hil arteko kontratazioa bai balio erlatibo (+%27,5) zein absolutuetan; Bizkaian ere gora egin du kontratazioak (+2.930 kontratu, % 8,3 gehiago); Gipuzkoan, berriz, behera egin dute erregistratutako kontratuek (-1.041 eta % 4,5eko jaitsiera).

Aurreko urtearekin alderatuta, hiru lurraldeetan egin dute gora kontratazioek. Araban hazi da gehien balio absolutuetan eta ehunekoetan; izan ere, % 30,9 hazi da eta 4.835 kontratu gehia-

go sinatu dira. Bizkaian % 9,6 igo da (3.346 kontratu gehiago) eta Gipuzkoan 1.802 kontratu egin dira, % 9 gehiago.

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

Urrian sinatutako kontratuen % 28,3 aldi baterako laneko enpresen bidez egin dira. ABLEen bidezko kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino; lehenengoen artean, kontratuen % 35,4 enpresa mota horren bidez egin da, eta emakumeen artean, berriz, kontratazioen % 21,1 soilik izan dira ABLE bidez.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, ABLE baten bidez egindako kontratazioak % 33 egin du gora (3.913 kontratu gehiago), eta, 2023ko urriarekin alderatuta, % 37,9 egin du gora (+4.336 kontratu).



Kontratuen erregistroa 2024ko urrian

		Urr-2024	Ira-2024	Urr-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	19.034	19.097	18.858	-63	-0,33	176	0,9
	Aldi baterakoa	61.681	55.316	51.874	6.365	11,51	9.807	18,9
	Guztira	80.715	74.413	70.732	6.302	8,47	9.983	14,1
	Mugagabeen %	23,6%	25,7%	26,7%				
Sexua	Gizona	39.546	36.536	34.434	3.010	8,24	5.112	14,8
	Emakumea	41.169	37.877	36.298	3.292	8,69	4.871	13,4
	Guztira	80.715	74.413	70.732	6.302	8,47	9.983	14,1
	Emakumeen %	51,0%	50,9%	51,3%	0	0,20	0	-0,6
Mugagabea	Gizona	10.032	9.738	9.667	294	3,02	365	3,8
	Emakumea	9.002	9.359	9.191	-357	-3,81	-189	-2,1
	Guztira	19.034	19.097	18.858	-63	-0,33	176	0,9
Aldi baterakoa	Gizona	29.514	26.798	24.767	2.716	10,14	4.747	19,2
	Emakumea	32.167	28.518	27.107	3.649	12,80	5.060	18,7
	Guztira	61.681	55.316	51.874	6.365	11,51	9.807	18,9
Guztira	Gizona	39.546	36.536	34.434	3.010	8,24	5.112	14,8
	Emakumea	41.169	37.877	36.298	3.292	8,69	4.871	13,4
	Guztira	80.715	74.413	70.732	6.302	8,47	9.983	14,1
Mugagabeen tasa	Gizona	25,4%	26,7%	28,1%				
	Emakumea	21,9%	24,7%	25,3%				
	Guztira	23,6%	25,7%	26,7%				
Lanaldi partziala	Mugagabea	5.737	6.068	5.714	-331	-5,45	23	0,4
	Aldi baterakoa	21.410	20.036	18.334	1.374	6,86	3.076	16,8
	Beste batzuk	53.568	48.309	46.684	5.259	10,89	6.884	14,7
	Guztira	80.715	74.413	70.732	6.302	8,47	9.983	14,1
	LP tasa	33,6%	35,1%	34,0%				
Lanaldi partziala	Gizona	9.139	8.951	7.982	188	2,10	1.157	14,5
	Emakumea	18.008	17.153	16.066	855	4,98	1.942	12,1
	Guztira	27.147	26.104	24.048	1.043	4,00	3.099	12,9
	Gizonen tasa	23,1%	24,5%	23,2%	0	-5,67	0	-0,3
	Emakumeen tasa	43,7%	45,3%	44,3%	0	-3,41	0	-1,2
	Tasa guztira	33,6%	35,1%	34,0%	0	-4,12	0	-1,1
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	126	186	50	-60	-32,26	76	152,0
	Beste batzuk	80.589	74.227	70.682	6.362	8,57	9.907	14,0
	Guztira	80.715	74.413	70.732	6.302	8,47	9.983	14,1
	Prestakuntzakoak (%)	0,2%	0,2%	0,1%				
L. historikoa	Araba	20.487	16.074	15.652	4.413	27,45	4.835	30,9
	Bizkaia	38.345	35.415	34.999	2.930	8,27	3.346	9,6
	Gipuzkoa	21.883	22.924	20.081	-1.041	-4,54	1.802	9,0
	EAE	80.715	74.413	70.732	6.302	8,47	9.983	14,1
Gizonak	Lehen sektorea	2.605	2.320	2.033	285	12,28	572	28,1
	Erauzketa-industriak	14	4	4	10	250,00	10	250,0
	Manufaktura-industriak	6.286	6.682	6.329	-396	-5,93	-43	-0,7
	Energia	13	20	12	-7	-35,00	1	8,3
	Ura	537	516	560	21	4,07	-23	-4,1
	Eraikuntza	1.821	1.771	1.787	50	2,82	34	1,9
	Merkataritza	3.475	3.258	3.161	217	6,66	314	9,9
	Garraioa	4.118	3.908	3.796	210	5,37	322	8,5
	Ostalaritza	3.866	3.599	3.572	267	7,42	294	8,2
	Informazioa eta komunikazioa	4.792	2.892	1.902	1.900	65,70	2.890	151,9
	Finantzak eta aseguruak	167	110	140	57	51,82	27	19,3
	Higiezinen sektorea	30	24	36	6	25,00	-6	-16,7
	Zientifikoak eta teknikoak	1.052	1.015	886	37	3,65	166	18,7
	Administraziokoak	3.414	2.719	3.284	695	25,56	130	4,0
	Administrazio publikoa	482	471	391	11	2,34	91	23,3
	Hezkuntza	1.392	2.014	1.465	-622	-30,88	-73	-5,0
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	2.083	1.804	1.831	279	15,47	252	13,8

Kontratuen erregistroa 2024ko urrian

		Urr-2024	Ira-2024	Urr-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.813	2.770	2.512	43	1,55	301	12,0
	Beste zerbitzu batzuk	522	556	653	-34	-6,12	-131	-20,1
	Etxeetako jarduerak	61	81	79	-20	-24,69	-18	-22,8
	Lurraldez kanpoko erakundeak	3	2	1	1	50,00	2	200,0
	Guztira	39.546	36.536	34.434	3.010	8,24	5.112	14,8
Emakumeak	Lehen sektorea	311	272	235	39	14,34	76	32,3
	Erauzketa-industriak	4	4	2	0	0,00	2	100,0
	Manufaktura-industriak	2.166	2.405	2.058	-239	-9,94	108	5,2
	Energia	9	14	17	-5	-35,71	-8	-47,1
	Ura	47	47	52	0	0,00	-5	-9,6
	Eraikuntza	149	148	131	1	0,68	18	13,7
	Merkataritza	5.137	4.582	4.564	555	12,11	573	12,6
	Garraioa	1.009	933	983	76	8,15	26	2,6
	Ostalaritza	6.629	5.873	5.686	756	12,87	943	16,6
	Informazioa eta komunikazioa	3.764	2.419	1.533	1.345	55,60	2.231	145,5
	Finantzak eta aseguruak	208	145	180	63	43,45	28	15,6
	Higiezinen sektorea	84	71	66	13	18,31	18	27,3
	Zientifikoak eta teknikoak	1.152	1.084	1.048	68	6,27	104	9,9
	Administraziokoak	3.952	3.838	4.204	114	2,97	-252	-6,0
	Administrazio publikoa	771	624	678	147	23,56	93	13,7
	Hezkuntza	4.030	5.055	3.744	-1.025	-20,28	286	7,6
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	8.020	6.732	7.178	1.288	19,13	842	11,7
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.841	1.518	1.723	323	21,28	118	6,8
	Beste zerbitzu batzuk	852	951	1.011	-99	-10,41	-159	-15,7
	Etxeetako jarduerak	1.028	1.156	1.199	-128	-11,07	-171	-14,3
	Lurraldez kanpoko erakundeak	6	6	6	0	0,00	0	0,0
	Guztira	41.169	37.877	36.298	3.292	8,69	4.871	13,4
Guztira	Lehen sektorea	2.916	2.592	2.268	324	12,50	648	28,6
	Erauzketa-industriak	18	8	6	10	125,00	12	200,0
	Manufaktura-industriak	8.452	9.087	8.387	-635	-6,99	65	0,8
	Energia	22	34	29	-12	-35,29	-7	-24,1
	Ura	584	563	612	21	3,73	-28	-4,6
	Eraikuntza	1.970	1.919	1.918	51	2,66	52	2,7
	Merkataritza	8.612	7.840	7.725	772	9,85	887	11,5
	Garraioa	5.127	4.841	4.779	286	5,91	348	7,3
	Ostalaritza	10.495	9.472	9.258	1.023	10,80	1.237	13,4
	Informazioa eta komunikazioa	8.556	5.311	3.435	3.245	61,10	5.121	149,1
	Finantzak eta aseguruak	375	255	320	120	47,06	55	17,2
	Higiezinen sektorea	114	95	102	19	20,00	12	11,8
	Zientifikoak eta teknikoak	2.204	2.099	1.934	105	5,00	270	14,0
	Administraziokoak	7.366	6.557	7.488	809	12,34	-122	-1,6
	Administrazio publikoa	1.253	1.095	1.069	158	14,43	184	17,2
	Hezkuntza	5.422	7.069	5.209	-1.647	-23,30	213	4,1
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	10.103	8.536	9.009	1.567	18,36	1.094	12,1
	Arte- eta jolas-jarduerak	4.654	4.288	4.235	366	8,54	419	9,9
	Beste zerbitzu batzuk	1.374	1.507	1.664	-133	-8,83	-290	-17,4
	Etxeetako jarduerak	1.089	1.237	1.278	-148	-11,96	-189	-14,8
	Lurraldez kanpoko erakundeak	9	8	7	1	12,50	2	28,6
	Guztira	80.715	74.413	70.732	6.302	8,47	9.983	14,1
Gizonak	<>	2	0	0				
	Zuzendaritza	84	122	80	-38	-31,15	4	5,0
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	6.695	5.848	4.357	847	14,48	2.338	53,7
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	4.579	4.183	4.250	396	9,47	329	7,7
	Administrazioko langileak	1.544	1.249	1.267	295	23,62	277	21,9
	Zerbitzuetako kualifikatuak	7.584	6.755	6.819	829	12,27	765	11,2

Kontratuen erregistroa 2024ko urrian

		Urr-2024	Ira-2024	Urr-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	262	416	273	-154	-37,02	-11	-4,0
	Industriako kualifikatuak	3.460	3.312	3.261	148	4,47	199	6,1
	Operadoreak	3.757	4.093	4.196	-336	-8,21	-439	-10,5
	Kualifikatu gabeak	11.579	10.558	9.931	1.021	9,67	1.648	16,6
	Guztira	39.546	36.536	34.434	3.010	8,24	5.112	14,8
Emakumeak	<>	0	0	0				
	Zuzendaritza	48	65	54	-17	-26,15	-6	-11,1
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	9.126	8.515	6.998	611	7,18	2.128	30,4
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	3.699	3.197	3.545	502	15,70	154	4,3
	Administrazioko langileak	2.512	2.293	2.339	219	9,55	173	7,4
	Zerbitzuetako kualifikatuak	16.102	14.177	14.224	1.925	13,58	1.878	13,2
	Oinarrizko kualifikatuak	33	48	24	-15	-31,25	9	37,5
	Industriako kualifikatuak	418	443	375	-25	-5,64	43	11,5
	Operadoreak	607	724	785	-117	-16,16	-178	-22,7
	Kualifikatu gabeak	8.624	8.415	7.954	209	2,48	670	8,4
	Guztira	41.169	37.877	36.298	3.292	8,69	4.871	13,4
Guztira	<>	2	0	0	2		2	
	Zuzendaritza	132	187	134	-55	-29,41	-2	-1,5
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	15.821	14.363	11.355	1.458	10,15	4.466	39,3
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	8.278	7.380	7.795	898	12,17	483	6,2
	Administrazioko langileak	4.056	3.542	3.606	514	14,51	450	12,5
	Zerbitzuetako kualifikatuak	23.686	20.932	21.043	2.754	13,16	2.643	12,6
	Oinarrizko kualifikatuak	295	464	297	-169	-36,42	-2	-0,7
	Industriako kualifikatuak	3.878	3.755	3.636	123	3,28	242	6,7
	Operadoreak	4.364	4.817	4.981	-453	-9,40	-617	-12,4
	Kualifikatu gabeak	20.203	18.973	17.885	1.230	6,48	2.318	13,0
	Guztira	80.715	74.413	70.732	6.302	8,47	9.983	14,1
ABLE	Gizonak	9.929	7.789	7.517	2.140	27,47	2.412	32,1
	Emakumeak	5.854	4.081	3.930	1.773	43,45	1.924	49,0
	Guztira	15.783	11.870	11.447	3.913	32,97	4.336	37,9
Pertsona-kopurua	Gizonak	28.018	28.011	25.223	7	0,02	2.795	11,1
	Emakumeak	27.805	28.741	25.778	-936	-3,26	2.027	7,9
	Guztira	55.823	56.752	51.001	-929	-1,64	4.822	9,5
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	24.159	23.492	21.451	667	2,84	2.708	12,6
	Batxilergoa	13.115	13.033	11.744	82	0,63	1.371	11,7
	LHko ikasketak	8.543	8.766	8.350	-223	-2,54	193	2,3
	Unibertsitate-ikasketak	9.870	11.325	9.211	-1.455	-12,85	659	7,2
	Atzerritarra	11.541	11.633	10.494	-92	-0,79	1.047	10,0
	Bertakoa	44.282	45.119	40.507	-837	-1,86	3.775	9,3
	<>	25	42	24	-17	-40,48	1	4,2
	Aberrigabea	57	68	69	-11	-16,18	-12	-17,4
	Europako Erkidegoa	858	837	735	21	2,51	123	16,7
	Erkidegokoa ez den Europa	843	889	827	-46	-5,17	16	1,9
	Txina	107	115	125	-8	-6,96	-18	-14,4
	Japonia	4	4	5	0	0,00	-1	-20,0
	Asiako beste herrialde bat	530	569	519	-39	-6,85	11	2,1
	Saharaz hegoaldeko Afrika	1.573	1.704	1.438	-131	-7,69	135	9,4
	Afrikako iparraldea	1.786	1.715	1.649	71	4,14	137	8,3
	Ipar Amerika	32	36	25	-4	-11,11	7	28,0
	Erdialdeko eta Hego Amerika	5.719	5.648	5.073	71	1,26	646	12,7
	Ozeania	7	6	5	1	16,67	2	40,0
	Atzerritarrak guztira	11.541	11.633	10.494	-92	-0,79	1.047	10,0